

Arautegia

Guraso agurgarriak:

Urtero bezala, eskolaren funtzionamendu arauak gogoratzen dizkizuegu, haien onarpena guztion onerako izango dela espero dugularik.



1. Gogorarazten dizuegu goiz eta arratsaldeko ordutegia honako hau dela: Astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan: 09:00 – 13:00 eta 15:00 – 16:30
Asteazkenetan: 09:00 – 13:00. Jan-tokia 13:00etatik 15:00etara.
Ordutegi honetatik kanpo ikastetxeak ez du ikasleengan erantzukizunik. Eskolaz kanpoko ekintzaren bat egiten dutenak antolatzailearen erantzukizunpean egongo dira.
2. Eskolara etortzea bezain garrantzitsua da guztion puntualtasuna. Barakaldoko Udaletxeak martxan jarri duen “Eskola-absentismoa programa” barruan, eskolarako hutsegiteak eta behin baino sarriagotan berandu heltzeak ere abisatzeko derrigortasuna ezarri da.
3. Berandu etorri z gero edo lehenago irten behar izanez gero, atezainak hartuko du umea. Ez duzue geletara igo behar.
4. Irakasleei edozein abisu emateko idatziz egin ezazue bai agendaren bidez bai umearen bidez. Eman dizkizuegun ereduak erabili ditzakezue.
5. Umeen bila etortzen zaretenean, ez sartu eskolara bost minutu lehenago arte (nahiz eta ateak zabalik aurkitu).
6. Eskolaz kanpoko ekintzetara umeak ekartzen badituzue, utzi beste ikasle guztiak ateratzen, eta gero zuek sartu.

7. Lagundu patioak garbi mantentzen. Ez bota paperik ezta beste hondakinik lurrera. Gogoratu DEBEKATURIK DAGOELA eskola osoan erretzea.

8. Bisita ordutegiak:

ZUZENDARITZA:

goizez 09:00— 13:00

TUTOREAK:

ostegunero 13:00— 13:30

(edo besterik irakaslearekin adostuz gero)

Arau hauek errespetatzeak daukan garrantzia ulertu duzuelakoan agurtzen zaituzte.

ZUZENDARITZA TALDEA